

KULTUR POLITIKARAKO

TXOSTENA

KULTUR POLITIKARAKO TXOSTENA

1.- SARRERA	1
1.1.- Txostenaren testuingurua eta hedapena	1
2.- PROPOSAMENAK	2
2.1.- Kultur politika, kultur integrazioaren ikuspegitik.....	3
2.2.- Kultur politika gizartearen buruzagitzaren abiapuntutik	4
2.3.- Kultur politika, "herriska orobiltzailea" eta norbere nortasunaren artean.....	6
2.4.- Kultur politika jendetzen kultura- kultura kritikoa binomioaren aurrean	8
3.- KULTUR POLITIKAREN EGITURA.....	9
3.1.- Oroimena.....	9
3.2.- Hedapena	11
3.3.- Sormena	11
3.4.- Euskalgintza	12
3.5.- Kirola	12
3.6.- Gazteria.....	13
3.7.- Zaharrak.....	13
4.- EUSKARA	14
4.1.- Iraganari lotuta, geroari begira	14
4.2.- Hizkuntz aniztasuna gizarte egituratu batean	15
4.3.- Itxurazko ofizialkidetasunetik benetako ofizialkidetasunera.....	16

1.- SARRERA

1.1.- Txostenaren testuingurua eta hedapena

Gutxi dira gizakion bizitzan eta gizarte bizitzan kulturak baino definizio gehiago eduki dezakeen arloak. Kulturaz, esaterako, asmo orobiltzailearekin hitz egin daiteke, esanez beraren kontzeptutik kanpo ez dela geratzen giza jarduera bat bera ere; baina definizio zorrotzago eta zehatzagoak ere egin litezke.

Txosten honen asmoa ez da Euzko Alderdi Jeltzalearen aukera politikoa defini daitekeen maila guztiei buruzko azterlan xehekatua egitea. Txosten honek ez du orokortzailea izan nahi. Beronen sorburua kezka zezatz eta jakina da.

Gizarteak aldatuz doaz ezinbestean eta hala ari dira gizarteak garatzen diren giroak ere. Gaur egungo gizarteengan eraginik handiena eta zabalena duten bi ezaugarrietarikoak aldaketa eta aldaketaren abiadura dira. Kulturaren ikuspegitik ere egoera hala da, jakina.

Nahiz eta honelako definizioek beti euren alderdi ezkutua eduki, agerikoari aurka egiten diona, ez da asko ausartzea esatea euskal gizartea eta bere ingurua ere aldatzen ari direla; hala bada, Euzko Alderdi Jeltzaleak horri bere arreta eman behar dio eta zer jarrera duen azaldu behar du.

Aribideko aldaketez azterlan xehekatua egiten hasi gabe eta haiek baloratu ere egin gabe, Euzko Alderdi Jeltzaleak, alabaina, Euzkadiko kultur jarduera bideratzeko garrantzitsutzat dituen irizpide eta jarraibideak plazaratu nahi ditu. Honetan buruzagi eta partaide izan behar dugu Euzko Alderdi Jeltzalearen afiliatuok.

1.2.- Euskal gizartea batetik teknologiak kultur jardueran eragiten diharduen prozesu guztietan murgiltzen ari da. Aipa dezagun, garrantzitsua baita, kulturaren arloko alderdirik kritikoenek teknikaren eta industriaren garapenak giza kulturaren eremu guztietan eragiten dituen ondorioetarako erantzun egokia prestatu duen aldi berean garapen horrek berorrek indartsu bereganatu ditu gizartearen sorkuntza, ekoizpen eta kultur hedapenerako bideak.

Halaber, garrantzitsua da azpimarratzea kultura gara dadila nahi duten arduradunek gizarte osoari eta erantzule politikoei sinetsarazi behar dietela kultur jarduerak eragin handia duela ekonomian eta azpiegiturak eta kultur jarduerak berebiziko garrantzia duela ekonomiaren garapenean. Ekonomia ate nagusitik sartu da kulturaren arloan, teknologia eta komunikabide berriak lagun dituela, horiek direlako orain gure gizarteetako kultur agente nagusiak.

Topikoa izanagatik, egia ere bada: gaur egungo gizarteetan komunikazioa eta informazioa ardatz bihurtu dira edo bihurtzen ari dira. Eta horrek berekin dakar gizarteak nolabait "kultura" gizarte bihurtzen ari direla.

Kakotx horiek adierazi nahi dute kultura kontzeptuak testuinguru honetan azterlan sakona behar duela; inolaz ere ez da balorazioa, ez positiboa, ez negatiboa, momentuz behintzat.

Teknologia kulturaren arloan sartzea, egungo gizarteak komunikazio eta informazio gizarte bihurtzea, kulturak "mundua den herritxoa" deritzonarentzako joerea izatea, horiek guztiok kultura dagoeneko aldatu eta aldatzen ari delako egoera ekarri dute, eta ondorioz arlo horretako politika ezartzeko interesatuek eztabaida patsadatsu eta askeari ekin beharko diote.

Beste alde batetik, euskal gizartean badaude oraindik ere kultur arazoak, beti berriz planteatu behar lirakekeenak, batez ere kultur integrazioaren arazoa. Hala ere, esan beharra daukagu arazo hau, euskal gizartearen oinarritzko arazoa duguna, geroago eta ezagunagoa dela Europako beste herrietako gizarteetan ere, batzuetan besteetan baino bortitzago, eta europar gizarte osoa ere ukitzen duela, europar batasunaren ideala gauzatuko bada.

Euzko Alderdi Jeltzalearen txosten honek zerbait ekarri nahi dio Euskadin behar dugun eztabaida baketsu eta askeari, etorkizuna ez diezaigun inork gure borondatearen aurka antola, aitzitik, guk geuk aurretik eraturikoa izan dadin.

1.3.- Lehenbiziko lerroetan esandakora itzuliz, txosten honekin ez dugu nahi aztertu kultur politikaren arazoa generikoki, baizik eta unean uneko ezaugarri bereziei kasu eginez. Gaur egun Euzkadiko kultur politikan garrantzitsuak diren lau gaietarako proposamenak ematea da gure asmoa.

Lehenengo eta behin, hor dugu euskal gizartearen kulturaren integrazeari loturiko arazo guztiak.

Bigarrenik, geroago eta beharrezkoagoa da Administrazioaren erantzukizuna eta eskuhartzea norainokoak izan behar diren eta gizarteak kultur jardueran zernolako buruzagitza izan behar duen azaltzen duen arazoa.

Hirugarrenik, eta kontutan izanik "herriska orobiltzaile"ranzko joera, ezin utz daiteke bazterrean ahantzirik erabat beharrezkoa dela oreka egotea kultura orobiltzailea izatearen eta nork bere kultura zehatza garatzearen artean; arazoa homogeneousitatearen eta nortasunaren arteko harremanak zertan dautzan da.

Eta azkenik, eta hau ez da soilik kulturak industri eta teknologi gizarteetan kritikoaren egiten zuen garaiaren oroimin hutsa, komunikabideetan eta komunikabideei ezker bizi delarik mundu guztian zabaltzen den kulturaren eta helburua kritika eta humanismoa duen kulturaren artean dauden arazoak azaltzen jarraitu behar dugu.

2.- PROPOSAMENAK

Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du euskal gizartearentzako kultur politikaz egiten den edozein txostenek aurreko lerroaldean adierazi diren lau gaiak ukitu behar dituela. Agiri honen bidez horixe berori egin nahi dugu, hain zuzen: kultur politika generikoki planteatu beharrean, gai horietaz sortzen diren arazoei aurre egiteko proposamenak azaldu.

2.1.- Kultur politika, kultur integrazioaren ikuspegitik

Lehen ere esana dugu kultur integrazioa gai geroago larriagoa bihurtzen ari zaigula ia gizarte moderno guztietan. Hori gora-behera, ostera, kultur integrazioa euskal gizrtean konpontzeke ditugun arazoetarikoa dugu. Eta konpontzeke egoteaz gainera, arazo nagusietakoa ere bada, gure gizartearen funtsezko gaia.

Horrexegatik, bada, eta kultur integrazioa bezalako hitz handiguratsuek ulertzeko modu bat baino gehiago izateko arriskua dutenez gero, hots, hitzei edukin desberdinak eta are elkarren aurkakoak ere ematekoa, hainbat lasterren adierazi behar da zer ulertzen dugun txosten honetan kultur integrazioa diogunean, zein den horren hedapena eta zein kontzeptua planteatzen den testuingurua.

Kontutan hartzen badugu euskal gizartea elenantiza dela (euskara/gaztelera/frantsesa) eta beraren baitan kultur tradizio anitz dagoela, Euzko Alderdi Jeltzaleak kultur politikaz aritzean plazaratzen duen egitasmoak duen helburua ondokoa duzue: hizkuntza, tradizio eta ulerkuntza historikoen aniztasunak dakarren aberastasuna galdu gabe eta lehen bezala euskararen aurkako bidegabeko jarreretan erori barik, gizarte integratua eratzea, aniztasuna baloretzat hartzen duelarik, denona dela ulertzen duena.

Kultur politika edo, hobe esan, kulturaren arloko jarduera guztiak egitasmo bateratu batean lan egitean biltzen direla uste izateak berekin dakar hiritar guztiak partaide diren gizartea sortzeko ahaleginak egitea, euskal hiritarrek norbanako legez onura hartzen duten gizartea eratzea, zeren eta holako gizartea pertsona gehienek eurentzat har dezaketen baterako egitasmoa baita, ezer ez inor ez delako bertatik kanpo geratzen, denek dutelako euren lekua kide aktibo gisa.

Kultur politikaren baterako egitasmoa antolatzeak euskal hiritar guztien eskuko denek norbanako legez hizkuntz komunitate bien kide aktiboak izateko behar dituzten bide guztiak edukitzea dakar, hala euskal gizartea erabat eleanitza izan dadin. Euzkadin bizi diren pertsona guztien eskura behar diren bide guztiak jartzeak esan nahi du denek izan behar dutelña kultur tradizio guztien partaide, halatan partaidetza horren bidez jaraunspen amankomun anitzerako aurrerapausuak emateko, denon historia berriro ulertu eta etorkizuna batera prestatzeko. Baina hori hala gerta dadin, bide berriak urratu beharko ditugu, euskal kultura sendotu eta gizartean hizkuntz normalizazioa buru dadin ahalbideratzeko.

Kultur politika egitasmo integratzailea izateak esan nahi du diferentzia eta aniztasunaren ikur diren elementu guztietara hurbildu behar dela, helburua ikurrok

bereizketa eta norberekokeriarako pizgarri legez barik egitasmoa bera aberasten duten ekarpen gisa ulertzea dela.

Kultur politika egitasmo integratzailea izateak esan nahi du arreta berezia eman behar zaiola euskarak bizi duen kinka larriari, hark aurrera egin dezan eta gizartean normaliza dadin behar dituen bide guztiak jartzea.

Euskara gizartean guztiz normalizaturik egongo bada inoiz, euskal hiritar guztiek euren borondatez eta askatasunez hala eurenganutzen dutelako izango da eta horretarako bidea euskararen beraren barne egoera eta kalitatea sendotzea da, batez ere komunikazio-gaitasunari dagokionez.

Kultur politikari buruzko txosten honen arabera, gaztelera (eta frantsesa) onartu behar dira, baina ez haiek eguneroko bizimodurako hizkuntza nagusitzat harturik, aldi berean politikoki eta kulturari dagokionez bigarren mailakotzat joaz, hori eskizofrenikoa bailitzateke, baizik eta gure kultur ondarearen osagai garrantzitsua uste izanik.

Horregatik guztiagatik, guren ustez elkarrizketa da kultur politikaren oinarritzko elementua: hizkuntzen arteko elkarrizketa, kultur tradizioen artekoa, hiritarren artekoa. Elkarrizketaren aldeko apostua eginagatik, hala ere, ez dugu horregatik ez ikusiarena egin behar euskal gizartean bi hizkuntzen artean dagoen desberdintasunaren aurrean, ongi dakigularik horrelako egoeratik edonoiz sor daitekeela gatazka. Gauzak hala daudela aintzat hartzea, haatik, ez da izan behar gatazkakortasunaren eragilea, hura gainditzeko modua baino. Elkarrizketaren kulturaz esaten den guztia ez nahikoa. Horrela jokatz gero, egoera zuzentzeko nahia nabaritzen da, kritika onerakoa da; oniritziak, atsegintasunak eta ontasunak bazter uzten dituzte aurretiz kondenatzea, hizka-mizketan irainka jardutea eta alperriko hitzen harrokeria.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, milaka urteetan zehar euskara ardatz izan dutela euskaldunen ezaugarri bereizle izan diren kulturaren osagai guztiak jagoteko buru-belarri lanean jarduteko asmoarekin sortu zen alderdi politikoa den aldetik, uste du egitasmo amankomun eta integratzailearen bidez soilik ziurta daiteke hizkuntzaren eta euskal kulturaren iraupen normalizatua.

Kultur politikak, txosten honetan planteatuko den bezala, berebiziko garrantzia du euskal gizartearentzat. Edozein giza taldetan kultur egintzarik behinena indarkeriaren arrisku banatzaileei garaitu eta gizarte gisa eratzea da. Ildo honetatik, euskal gizarteak azken urteotan terrorismoak berekin zuen banaketa-arriskua gainditu du, eta gizarte anitza izateko borondatea berretsi du. Euskal gizarteak edozein giza talderen kultur egintza nagusia burutu du.

Kultur politika egitasmo integratzailea eta amankomuna izatea beste urrats bat da bide horretan berorretan: batzuk eta besteak gutxi gorabehera elkarrekin bakez bizi izatea gainditu eta aurrera egitea euskal kultur komunitate bakarrerantz, benetan bildura eta denon ekarpenei esker aberatsagoa den gizarterantz.

2.2.- Kultur politika gizartearen buruzagitzaren abiapuntutik

Gizartearen kultura sendoa ez bada, gizartea kultur jardueretan protagonista ez bada, gizarteak berak ekimenik ez badu, ezinezkoak dira bai ardatza egitasmo integratzaile amankomuna duen kultur politika, bai txosten honetako datozen epigrafeetan azalduko ditugun erronkei aurre egin diezaiekeen kultur politika.

Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du kulturaren eremuan bereziki beharrezkoa dela administrazio publikoarekiko menpetasunik ez duen gizartea izatea, gizarteak protagonismoa bereganatzea, bere ekimen-ahalmena sendotzea eta berekiko erantzukizuna hartzea.

Euskal gizartea berea duen tradizio historikoan dago kokaturik; bertan administrazio publikoaren zeregina behar-beharrezkora mugatuta zegoen eta sorospidetasun printzipioak benetako eragina, administrazioaren maila guztietan ezezik, baita administrazio eta gizartearen artean ere.

Izan dioren administrazio guztiek hamarkada luzeetan, mendez mende ez esateagatik, Euskal Herriko kultura bertan behera utzita eduki dute, oinarrizko azpiegiturak falta dira, euskararen egoera larria da, euskal ertistak eta herri kirolak bazterturik egon dira, gureak diren komunikabideak ere falta izan dira; horiengatik guztiengatik, Euskal Autonomi Elkartearen administrazioa autogobernuaren lehenbiziko urteetan kulturaren arloan ere oso aktiboa izan da eta eskuhartze handiei ekin behar izan die. Nafarroan eta Iparraldean, aldiz, egoera bestelakoa izan da.

Hala bada, euskal gizartea kultura administrazioaren zeregintzat duten hiru kultur tradizioen artean murgilduta bizi da; bi tradizio horietan kultur politikari buruzko ikuspegia administrazioarena da.

Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du badela garaia administrazioaren beharrezko jarduera eta eskuhartzearen eta gizartearen beraren ekimenen arteko orekarako bidean aurrera egiteko, gizarteak bere erantzukizunpeko zereginak buru ditzan. Administrazioak politikaren edozein arlotan, baina kulturarenean batipat, esku hartzen duen era bera, eskuhartzearen neurriak eta kalitatea berez dira gizartea bereizten duten kultur elementuak, gizartea aktiboa edo pasiboa, sortzailea edo kontsumitzailea, partaidetzazalea edo koldarra izatea eragiten dutenak. Horregatik, uste dugu kulturaren demokrazia lortzekotan lan egin behar dugu; horretarako kulturaren demokratizazioan dihardugu, aurreko fasea delako.

Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du, euskal gizarteari dagokionez, gizarte aktiboagoa, sortzaileagoa eta partaidetza gehiagokoa lortzea izan behar dela helburua eta beraren iritziz asmo hori erdiesteko kultur administrazioak geroago eta zorrotzago zehaztu behar ditu bere eskuhartzearen mugak eta gizartearen jardueretarako eremu eta posibilitate gehiago sortu behar ditu.

Oreka berrira iristeko, bide berriari ekiteko, bi baldintza bete behar dira.

Lehenengoa finantzaketari eta gizarteak kultur jardueretan protagonismo handiagoa bereganatzeko proposamenarekin batera doan zerga tratamenduari dagokie, horixe baita modua norbanakoek, sozietate erakundeek eta enpresek behar bezala finantzia ditzaten lanok.

Administrazioaren eskuetan egon den kulturaren inertzia gainditu eta gizarteak eta beraren agenteek, norbanakoek eta mota guztietako taldeek euren erantzukizunak euren gaitasunak, puntu hau nahitaez konpondu behar da.

Bigarren baldintza gizartearen antolakuntzarako ahalmenei dagokie. Euskal gizarteak bizi izan dituen inguruabar historikoak direla medio, tradizio eta ospe handiko kultur elkarte eta erakundeak ditu, garai oso zailtan herrian kultur bizitza duinari eutsi ahal izan diotenak.

Gizarteak orain arte administrazioaren eskuetan egon diren edo oraindik hala dauden zereginak bereganatu dituzten, beharrezkoa da orain gizartearen badauden elkarteak eta aurrerantzean sortzen direnei behar dituzten azpiegiturak ematea, hala euren gaitasunak erabiltzeko izan behar delakoan gaudena, erantzukizunak, bide ekonomikoak dituztela eta eraginkorrak direla. Berebiziko garrantzia dauka elkarteek kultur lanetan jardutea eta horretarako haien eskaerak asetzeko bideak ematea, izan ere elkarteak ia beti erakundeak baino hurbilagoa daudelako jendearengandik. Elkarteek izan behar dute jendearen eta erakundearen arteko zubia.

Euzko Alderdi Jeltzalearen aburuz, euskal gizartearen oraingo egoeran badaude adminis- trazioaren funtzioak gizarteari emateko posible izan daitezkeen pentsarazten dituzten zantzuak, geroago eta gehiago gainera. Baina zantzuok sendotu egin behar dira eta denok integratzeko balio duten egiturak sortu; egitura horiek bikoiztasunik, eskumen falturik eta nahasmendurik egon dadila ekidin behar dute, behar diren aberastasuna eta aniztasuna mantentzen dutelarik.

Euzko Alderdi Jeltzalea sinetsita dago Euskal Herrian kulturaren eremuko elkartegintzarako egiturak beste era batera antolatu behar direla, hala eginez gero, administrazio publikoaren jardunaren eta eta gizartearen beraren erantzukizunaren oreka berria sortuko litzatekeelako. Baina, euskal gizartearen elkartegintzarako bideak berrantolatu behar direla berresten dugularik, beharrezkoa da orobat botere publikoei kultur jardueren eremuan euren burua muga ditzatela eskatzea.

Kulturaren teknologizazioak gaur egungo gizarte guztiei ekarriko dien erronka larriei aurre egiteko modurik hobena gizartearen bere ekimen eta protagonismo ahalmenez ziur egotea da, hiritarrak kultura beraren jardueraren parametroak eta kalitatea administrazioaren bidez mugatu nahi dituztenean hil egiten dela jakitun egotea, denek jakitea euskal gizartearen integrazioa sekula ere ezin dekretatu izango duela administrazioak eta, aitzitik, euskal hiritarren partaidetzaren bidez lortuko dela.

Honetan Udalak egoera berrira moldatzeko ahalegin berezia egin behar du, herritarrak hurbilen dagoen erakundearen denez gero; ideia berriak proposatu behar ditu, herritarrak eta elkarteak erantzukideak izan daitezzen.

2.3.- Kultur politika, "mundua den herritxoa" eta norbere nortasunaren artean

Txosten honen sarreran esana dugu aurretik ere teknologiaren aurrerakuntzak kulturaren eremua astindu duela, bere aukera guztiekin, baina baita bere arrisku guztiekin ere.

Kultura merkataritzaren orbanik ez zuen eta merkatuaren premiek baldintzatzen ez zuten iragana goraiatu gabe, hala ere, esan beharra dugu teknologia kulturaren eremuan sartzearen poderioz merkatuaren balditzak eta ekonomi arrazoiak lehenengo mailara igaro direla.

Errealitate horren aurrean Euzko Alderdi Jeltzaleak duen jarrera ez datza ez teknologia eta ekonomiaren eta merkatuaren logika diabruzat hartzean, printzipioz kulturaren sorkuntza eta hedapenarekin bateraezinak direla uste izanik, ez egoera berrian zabaltzen zaizkigun aukera ekonomiko eta teknologikoak batere kritikarik gabe gorestean ere, bai baitakigu kulturak potentzial humanistikoa handia duela.

Euzko Alderdi Jeltzalearen iritziz, gaur egungo gizarteek kulturari dagokionez duten atazarik korapilotsuena aukera positiboak eta arrisku negatiboak ongi bereiztea da, hiritarrek teknologiak eskaintzen dituen aukerek kultura eskurago, kultur ezaguera zabalagoak eta orokorragoak, eta aldi berean euren nortasunean errotuagoak edukitzeko erabil ditzaten, unibertsalizazioaren alderdi positiboak eta homogenizazio eta erabatekotasunaren alderdi negatiboak zertan diren dakitela, humanismoaren baloreak zaindurik.

Teknologia berriek bidea emango digute bai homogenizatu eta erabatekatzeko, bai hiritarrok kulturaren partaidetza aktiboa izateko. Ekonomiaren eta merkatuaren logika, kulturaren arloan geroago eta garrantzi handiagoa duena, logika berarekin geroago eta merkatu zabalagoetara hazten ari da eta merkatua atal zehatz eta oso jakinetan banatzeko beharra eragin du.

Dagoeneko komunikabideetan gertatu den garapenak eta etorkizunean izango denak erronka berriak planteatzen dituzte. Erronka horiek ez dira, Euzko Alderdi Jeltzalearen aburuz, unibertsalak. Egia da, bai, kulturaren alde bat unibertsal bihurtzen ari dela, zenbait kultur jarduera, zenbait kultur eskema eta parametro, baina, orobat, egia da "herriska orobiltzailea" handiagoa eta orduan eta handiagoa dela ikusentzunezko komunikabideek eragiten duten erabatekotasunaren presioa, orduan eta beharrezkoagoa dela nork bere kultur eremuak bilatu eta sortzea, hurbilekoak, bereziak, nori bere burua identifikatzeko eta gizartearen buruan bidea zuzentzeko modua ematen diotenak.

Ikusentzunezko komunikabideek eragiten duten erabatekotasunaren aldean norbere kultur eremuez aritzeak ez du esan nahi txokokeria lehenetsi behar dela ideia unibertsalen aldean.

Batzuetan kulturaren arloan unibertsalismoa bilatu beharra ez da besterik merkatuaren homogeno, erabereko eta antzuak sortu eta menperatzeko estrategia. Eta, halaber, zenbait alditan kultur nortasunaren balioa nabarmentzea, hots, nork bere kultur eremua nahi izatea baliteke kultura sortzeko ezintasuna, pobrezia, beldurra eta kultur ahulezia ezkutatzeko modua baizik ez izatea. Ez eraberekotasuna ezin erka daiteke kulturaren unibertsalitatearekin, ez nork bere kultur eremuak defendatzea ezin pareka daiteke txokokeriarekin eta kultur arlotekeriarekin.

Unibertsalitatea eta nork bere kultur eremua nahi izatea elkarren aurkakoak ez direla sinesten dugunez gero, Euzko Alderdi Jeltzaleak mende bukaera honetan

unibertsalitatearen aldeko eta ereberekokeriaren aurkako apostua egin du, nortasun bereizi garatzearen alde eta txaubinismo mota guztien eta kultur arlotekeriaren aurka.

Aitzitik behar du; eginbeharra guk geure kultur ahalbideak sendotzea da, hala sorkuntza- izpiritua mantenduko baitugu, kulturaren arloan nagusi diren geldotasunari eta kontsumismoari garaituz. Asmoa arrotza ikasteko eta gureganatzeko, eta gurea ez denaren bidez ontzeko ahalmena areagotzea da, alde batera utzirik inoren usteari gurea berak nahi bezala zapaltzen uzten dion izpiritu kritikarik gabekoa. Prest egon behar dugu aberasgarri izan daitezkeen gauza guztiak hartzeko, ezin bizi gaitezkeelako oskol hermetikoan gordेरik. Ongi etorriak izan bitez beti beste herri batzuen kultur ekarpen guztiak.

Besteari zintzotasunez oniritzeko, aurretik nork bereari buruzko kontzientzia ziur eta kritikoa behar du. Mimetismoa, ordea, ikusten eta entzuten den guztia kopiatzea da, sarritan norberaren alderdirik bereena aurkitu dela uste izanik gainera.

Euzko Alderdi Jeltzaleak proposatzen duen kultur politikaren helburua horiek bereizteko ahalmena garatzea da, ahalmen hori arras garrantzitsua izango delako datozen urteetan: guretik beharrezkoa zaiguna eta kanpotik aberasgarri izan dakikeguna bereizi beharko dugu, hala batetik eraberekotasunaren arriskua eta bestetik isolaturik geratzekoa gainditu ahal izan dugulako.

Hori guztia erdiesteko, bertoko errealitatea eta tradizioa ezagutu behar ditugu, geure historia berreskuratu behar dugu eta oroitzapen historikoak zaindu. Era berean, kultura hedatzeko sare zabala ere behar dugu, horren bidez edozein hiritarrek batetik bere oroitzapen historikoa eskuko eduki ditzakeelako eta bestetik besteenak bere egin ditzakeelako.

Eta horretarako oroitzapen historikoa kultur sorkuntzaren bidez berritzeko bidea ematen duten baldintzak eduki behar ditu kulturak. Hori kultur inguruarekin zabal eta zintzo aurkaraturik eta herri erakundeek laguntza emanik soilik lor daiteke.

Kulturarengatiko "borroka" gaur egun oso loturik dago lomunikabideen aurrerakuntzari, ikusentzunekoenari batez ere. Ez du batere zentzurik kultur politika eta irratia eta telebistaren aurrerakuntza, publikoarena batipat, elkarren aurka jarri nahi izateak. Ildo honetatik, Euzko Alderdi Jeltzalea berriro ere berretsi egiten du Eusko Legebiltzarrak EITBri buruzko eztabaidan onetsi zituen ebazpenei eman zien aldeko botua. Ebazpen haiek EITBk bere irratia eta telebista emanaldietan behar duen oreka beharrezko eta zaila finkatu zuten, neurria kultur kalitatearen eta ikusentzule kopuruak eta merkatuak ezartzen duten logikaren artean jarritz, euskararen gizarte normalizazioari laguntza ematearen eta euskal gizartearen kultur aniztasuna emanaldietan gauzatzearen artean, alegia. Horretarako, euskara eta euskal kulturaren aldeko bereizkeria positiboa gauzatu da.

Ikusentzunezkoetako teknologiararen aurrerakuntzen (zuntz optikoa), komunikabide horien aukeren eta kultur politikaren garapenaren arteko harreman estuak kontutan harturik, Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du ikusentzunekoen arloan euskarri tekniko berriak erabiltzea kultur politikari guztiz loturik egon behar dela.

Beraz, ezinbestekoa da iraultza teknologiko-kulturalak ahalbideratu duen "mundua den herritxoa" ez dadila izan basamortu eraberetsua, baizik eta kulturaren garapenean parte har dezaketen hiritar aktiboak bizi diren herriska. Euskadiko kultur politikaren helburua, hain

zuzen, bere hiritarrak herriska orobiltzaile horren kide jakitun eta euren buruez ziur daudenak izan daitezen bideak jartzea izan behar da.

2.4.- Kultur politika, jendetzen kultura-kultura kritikoa binomioaren aurrean

Kulturan egun eragin ikaragarria duen teknologi iraultzak areagotu egin ditu lehen ere kultura modernoa bazeuden hika-mika batzuk.

Egungo kulturaren oinarriak batetik zientzia eta teknologiaren aurrerakuntza, hots, gizakiak natura menperatu eta ustiatzeko duen ahala eta bestetik gizakiak euren buruaren jabe eta aske diren subjektuak, alegia, baldintza guztiei garaitzeko gauza diren pertsonak izan daitezen nahi izatea diren heinean, beti egon da kultur sorkuntza beraren funtzio kritikotik ulertzeko joera.

Teknologiaren eta industriaren aurrerakuntzek "jendetzen kultura" deritzona sortu dute. Gizarte modernoaren ezaugarri nagusietarikoa, besteak beste, oinarritzko hezkuntza biztanle guztiengana hedatzea izan da. Bi elementu horiei esker, gaur egun ia gizarte geruza guztietakoek goza ditzajkete kultur ondasun gehienak.

Ilido horri jarraituz, esan dezakegu gizateriaren historian zehar kulturak inoiz ere ez duela gaur hainbat aukera eduki, kultura, zentzu hertsian harturik, inoiz ere ez duela parte hartu gaur hainbat jendek.

Baina, gizakion eta gizarteetako fenomeno guztiekin gertatzen den bezala, bilakaera hori ere bikoitza izan da. Ponentziaren sarreran esan dugu kulturak, bere funtzio kritikoa erabiliz, teknologiaren eta industriaren aurrerakuntzaren ondorioekiko gehiengoak beregana dezakeen jarrera ezartzea lortu baino lehen, hori bere indar guztiekin sartu dela kulturaren eremuan. Horrek, kulturara geroago eta jende gehiago hurbiltzea eragingo badu ere,aldi berean fenomenoaren bikoiztasuna ere areagotu egiten du.

Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du onez hartu behar dela hiritarrek kultura ezagutzea dakarren guztia; gure alderdiaren iritziz ona da teknologiaren garapenak kultur ondasunak hobeto eta gehiago zabaltzeko bideak ematea.

Euzko Alderdi Jeltzalearen ustez ontzat jo behar da herritarreei kulturara heltzeko bideak ematea dakarren guztia, ona da teknologiaren garapenak kultur ondasunen zabalkuntza handiagoa eta hobe ahalbideratzea, baina beti ere kontutan edukita herritarren partaidetza sustatu behar dela, ez kultura pasiboki kontsumitzea.

Ordea, Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du, kulturak etorkizunik izango badu, beraren sorkuntza eta berrikuntza ahalmena gorde eta aurreragotu behar duela. Ahalmen horrek berekin du, gainera, kritikotasuna, aurka egiteko grina, aurrekoaz aurrera egin nahia, gehiengo korrenteei jazartzea, inkonformismoa, laburbilduz, merkatuan eta jendetzen kultura nagusi diren legeak haustea.

Euzko Alderdi Jeltzaleak badaki kontua ez da bata ala bestea aukeratu beharra, jendetzen kulturaren alderdi positiboak ala kritikotasunaren kultura lehenestea, bai baitaki bien artean ezinbestez sortzen dela tentsioa eta hori ostentzeak kultur antzutasuna besterik ez dakarrela.

Jendetzen kulturaren eta kulturaren kritikotasunaren arteko tentsio hori berori da, hain zuzen, euskal kulturaren ezaugarria izan behar dena, Euzko Alderdi Jeltzalearen iritziz, horrek berekin dakarrelako ahalik eta jenderik gehienak kultur ondasunak gozatzea ahalbideratzea eta, aldi berean, euskal gizarteak ezaguna gainditu eta era berriak sortzen gaitasuna etengabe berriztatzea.

3.- KULTUR POLITIKAREN EGITURA

Aurreko ataletan azaldu ditugun lau arazo-alorren kasuan EAJk duen jokaera ezarri ezezik, nahitaezkoa da kultur politikaren egitura zein izango den aipatzea, kultur politikaren ikuspegi orokorra egitea baina gaiaren deskribaketa zehatz eta sakonegian erori gabe. Asmoa, bada, kultur politika horren egiturarik behinenak azaltzean datza, eta horien helburuak zeintzuk diren esatean, ondoren horien oraingo funtzionamendua eraginkorragoa izateko eta hura koordinatzeko gizarte-kulturaren arloan eragina duten hiru administrazio-mailen sailen artean.

Kultur politikak, beti ere kultura hitza zentzurik zorrotzenez erabilia, hiru ardatz nagusi ditu: gure arbasoengandik jarauntsi dugun tradizioa biltzea, edo beste era batera esanik, erkidegoaren oroimena egituratzea; tradizio hori eskualdatzeko eta sustatzeko bideak eraikitzea; eta kultura sortzeko giro egokia garatzea.

Eta kulturaren arloan beste hiru ardatz ere aipa genitzake, herritarren ongizateari lotuta daudenak: kirola, jarduera horrek gizartearen, kulturaren eta ongizatearen egituratze prozesuan duen garrantzia osoarekin; gazteriaren arloko politika, batez ere gazteen elkartegintzarako politika kulturaren ikuspegitik aztertuta, eta egun oraindik emakumea erabat integratzea eragozten duten kultur pautak eta baloreen berrikuntza.

Itxuraz neutralak diren jarrera batzuen aurrean, izan batzuek emakumeari, norbanako legez hartuta, pertsona gisa dagokion protagonismoa berreskuratzeko aukera aintzatesten baitiote, beste jarrera bat ere badago, aspaldion nagusitzen ari dena, emakumeen gizarte eta kultur egoera mugaturik dagoela aintzatesten duena eta uste duena norbanakoek zein elkarrekin konprometzua azaldu behar dutela eta gizarteak berak eta erakundeek ekintzak burutu behar dituztela hori goitik behera aldatzeko.

Azkenik, kultur politikaren gizarte-ardatzetarik azkena zaharrenganako arreta da; izan ere, talde hori geroago eta ugariagoa da gure gizartean.

3.1.- Oroimena

Gizarte batek bizitza kulturala izan dezan, lehenengo eta behin nahitaezkoa da funtsezko baldintza bat betetzea, erkidegoaren oroimena antolatzea, tradizioari zentzua ematen diona oroimen egituratua baita, eta horrela hala kulturaren eskualdaketarako nola sorkuntzarako oinarriak ezartzen direlako.

Erkidegoaren oroimena egituratzearen alorrik garrantzitsuenetarikoa euskal kultura berresku- ratu eta zaintzea da, kultura ondarea jagotea. Euskal Herriko Autonomi Elkarteari dagokionez, kultura ondarearen zaintza lege zehaztuta daukagu (Euskal Kultura Ondareari buruzko 1990eko Legea); lege horretan argi eta garbi ezarri dira kultura ondarearen gaineko politikarako gidalerroak zeintzuk diren. Horregatik, bereziki presazkoa da lege hori arauz garatzea eta, ondorioz, horretan eskudun diren herri administrazioek ahalegin bereziak egitea.

Erkidegoaren oroimena egituratzea ondorengo era honetan labur daiteke: historiaurreko aztarnak zaindu, aztertu eta bilatzea; ondoren gure Herriaren historia ezagutzeko nahitaezkoak diren aurrerakinak ezagutu, sailkatu, aztertu eta zaintzea. Bukatzeko, aurrean aipatu ditugun hiru alorretan aztarnak eta gaiak biltzen diharduten erakundeak: agiritegiak, liburutegiak, museoak.

Euskaldunon kultur ondarearen arloan egin beharreko lehenengo lana bilketa da, horren ostean ondasun higiezinak eta higi daitezkeen inbentarioa egingo da, hala materialenak nola materialak ez direnak. Inbentarioarekin ondasunen sailkapena egin eta egokia den babesa antolatuko da. Horretarako, erabateko presa dauka inbentario horiek eginda edukitzeak; beraz, gai honetako eskumena duen herri administrazioak lanari ekiteko bitartekoak behar ditu, eta lan egin ere azkar egin behar du, badugulako arriskua gure kultur ondarearen testigantzak galtzeko.

Hortik aurrera, gai horiei buruz bildu den informazio osoa hiritar ororen esku jarriko da; informazio hori bide egituratuetatik doa eta Ondare Zentroan eskuratu daiteke.

Baina Euskal Herriaren erkidegoaren oroimenari buruzko informazioa jasotzeko, Ondare Zentroa ezezik, aberri mailan jardungo duten beste hiru zerbitzu ere badaude: agiritegien aberri zerbitzua, liburutegien aberri zerbitzua eta museoen aberri zerbitzua.

Nazio zerbitzu horiek berreskuratzean, kudeaketarako oinarrizko jarraibideen homogenotasuna eta arreta bikaina eta malgutasuna bateratu behar dira, inguruabarren arabera sistema bakoitzeko osagaiak arreta berezia behar baitute.

Erkidegoaren historia oroimena egituratzeak eta oraintxe bertan aipatu ditugun hiru zerbitzu horiek martxan jartzeak xede bereberkin lan egiten duten beste erakunde eta elkarte batzuekin lankidetzan aritzea eskatzen dute.

Erakunde horien bidez erakunde sare bat beharko da eratu eta horrela bi izango ditugu, bata publikoa eta bestea pribatua (zibila, gizartearena), biak ere xedetzat euskal herriaren erkidegoaren oroimena zaintzea eta garatzea izango dutelarik. Baina horrek guztiak, arestian esan dugun moduan, administrazioaren eta gure iparra den atazaren alorrean lan egiten duten elkarte pribatu horien guztien arteko lankidetzan eskatzen du.

Dena den, ezin dugu ahaztu erkidegoaren oroimena egituratzeak, behin baino gehiagotan, euskarri dituen gaien zaharberrikuntza edo eraldaketa eskatuko dituela, eta euskarri horiek oroimen horren funtsezko oinarri direla.

3.2.- Hedapena

Esan dugu kultur bizitzaren ardatzik behinenetarikoa oroimen historikoa egituratzea dela; bada, bigarrena oroimen hori eskualdatzean eta hedatzean datza. Dena den, hedapen lan hori ezin da mugatu euskal herriaren erkidegoaren oroimena hedatzera, humanitate osoaren oroimena baita zabaldu behar dena, areago gu geu horren atal garen heinean.

Gure oroimenaren zein gizateri orokorraren oroimenaren hedapen eta eskualdatze lan honetan beren beregiko garrantzia dute erakundeek, benetako kultur hedapenaren sustatzaile direlako, beti ere erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan arituz. Dena den, arlo honetan ezin ditugu ahaztu arestian ere aipatu ditugun erakunde zibil eta gizarte mailakoak.

Kultura hedatzea adierazpen mota guztietan egin beharko da. Hedapenerako lan hau zuzenean egin daiteke herri administrazioetatik, edo bestela ataza hori erakunde pribatuen eskuordetzaren bidez. Halaber, herri zein gizarte erakunde iraunkorretan egitura daiteke, edo unean uneko kultur jarduketa zehatzak ahaztu barik aldiro-aldiro adierazi.

Hedapenerako politika horretan nahitaezkoa da helburu bikoitzari eustea: alde batetik hedapenari ekiteko egitura iraunkorrek sortzea eta egon daudenak garatzea; bestetik, une bakoitzean sor daitezkeen beharri zehatzak erantzuteko gai izatea.

Testuingurua hori dela, aipatu beharrekoa da komunikabideen eragina; Euzko Alderdi Jeltzalearen ustez estaldura zabalagoa eman behar litzaieke euskal kulturari loturiko gaiei.

Kultur hedapen politika hori era egokian eta eraginkorrean burutzeko, nahitaezkoa da oinarritzko eskola hezkuntzatik azpiegitura fisiko nahikoak izatea: auditoriumak, museoak, erakusketak egiteko aretoak, etab.

3.3.- Sormena

Kulturaren alorrak duen hirugarren ardatz nagusia sormena da; dudarik gabe inoren eskusartzeetatik askeen gorde behar den atala dugu, administrazioaren jarduketetatik ere askeen utzi behar dena, alegia. Orain arte azaldu ditugun bi ardatzak nahitaezkoak dira gero kultur sormena sustatu ahal izateko, eta sormen hori bultzatzeko eta bermatzeko biderik onena aurreko bi ardatzetan gauzatu diren egitasmoak era eraginkorrean burutzea litzateke.

Dena den, administrazioan kulturaren sormenaren alorrean lan egiten duten atalak asko dira; ezin ahantzi egun sormena, teknikari, ekoizpenari, finantzaketari eta enpresa munduari lotuta dagoela oso.

Horrexegatik, bada, besteak beste antzerki lanak sustatu behar dira, ikusentzunezkoen alorreko enpresak sendotu eta arte ederretan esperimendazioa lantzen duten aretoak sustatu, bai eta aisialdiko kultura ere.

3.4.- Euskalgintza

Hasieran aipatu dugun moduan, Euskal Herrian garatzen dihardugun kultur politikan badago beste ardatz nagusi bat, aurreko hiru zutabeekin bat egiten duena, euskalgintza. Euskalgintza hitzak bi gauza adierazi nahi ditu: euskal hizkuntzak berak duen indarra eta eragina, eta euskal kulturari zor diogun begirunea, hizkuntzari edukina zuzkitzeko derrigorrezkoa den begirune hori.

Hizkuntzaren aldeko politika hori garatzeko beren beregiko hiru tresna ditugu: EITB, HABE eta hezkuntz sistema elebiduna. Laburbilduz, horien kultur betebeharra ondorengo da: eskolan burutzen den euskalduntze prozesua sendotzea, eguneroko bizitzan euskara erabili nahi duen orori aukera hori eskaintzea, euskararen nortasuna finkatzeko prozesua bideratzea, euskaraz garatuko den gizarte giroak sortaraztea, euskara belaunaldien arteko lotura tresna bilakatzea, euskaldunek euskaraz ikasteko eta trebatzeko aukera izan dezatela erraztea, euskarari ere gainerako hizkuntzak duten maila akademikoa ematea, euskara ikasteko, hobetzeko eta egokitzeko aukerak eskaintzea eta, bukatzeko, euskara lan-mundura zabaltzea.

Euskal kulturaren aldeko lan horren xedea euskal giroa sortzea da, gure kulturaren indarra eta gizarte mailan hizkuntzaren normalkuntza erakarriko duen euskal ekosistema bat eratzea. Horretarako norberak bizitza osoa euskaraz egitea eta unibertso sinboliko euskalduna ahalbideratuko duten aukerak emango dituzten bideak urratu beharko dira.

Jakin badakigu lan neketsua izango dela, eta euskararentzako testuinguru egokia eskuratu arte geratzen zaigun bidea luzea izango dela. Hori guztia eskuratzeko funtsezko osagaia gehiengoa litzateke, borondatez eta era arruntean euskal hizkuntzaren errealitatea onartuko lukeen gehiengo zabala, hain zuzen. Ez dugu ahaztu behar igarota dela euskararen zabalkuntzarako edozein ekintza, egitarau edo egitasmo bidezko zen aldia. Gaur egun jarduteko pautak eta balore gutxienezko batzuei eman behar zaie lehentasuna.

3.5.- Kirola

Kasurik gehienetan, kultura hitza historiaren, literaturaren edo artearen alorreko gertakizun eta gaiei lotuta azalduko zaigu; baina badakigu berba horrek sakonagoko zentzu zabalagoa ere baduela, eta ildo horretatik jotzen badugu argi dago kirola eta gizartearen kultura erabat lotuta daudela. Baieztapen hori aise frogatu daiteke gure gizartean.

Abiapuntutzat beste ikuspegi bat hartzen badugu, lehenengo eta behin argi utzi behar da kirola egitea bide egokia dela psiko-gizartearen ongizaterako, ezin hobea gizartearen oreka eta egonkortasuna artatzeko.

Kirolaren esparrua tajutzeko funtsezko hiru oinarri bereiztuko ditugu: edozein kirol garatzeko nahitaezkoa den azpiegitura nahikoa izatea, kirol jarduketan iraunkortasuna

sendotu eta bermatuko duen egituraketa egokia izatea eta une bakoitzean sor daitezkeen aldian aldiko jarduerak.

3.6.- Gazteria

Bukatzeo gazteriaren alorrean burutu behar den politika eraenduko duen kultur ardatza aztertuko dugu. Ardatz honek, funtsean, bi atal ditu: alde batetik gazteek eratzen dituzten elkarteak, hots, elkartegintza; bestetik gazte horiek gizartean benetan integra daitezen bideak sortzea eta daudenak garatzea.

Noiz edo noiz gizarteratzearen urratsa eman beharko duten belaunaldi berriek aukera oso egokia dute jauzi hori elkarteen bidez egiteko, elkarte horietan sartzeko hainbeste esperientzia erakutsiko baitio gazteari eta gizarte batean bizitzeak eskatzen dituen erantzukizunak atzematen ikasiko duelako. Elkarteen bilbaduraren barruan gazteari aukera polita ematen zaio gero gizarteak eskatuko dizkionak ezagutzeko eta arazo bakoitzari aurre egiteko.

Bestalde, gazteen gizartean benetan integra daitezen bilatuko bada, sustatu egin beharko da haiek gizartearen maila guztietan parte hartzea eta haien bizimoduko egungo balore positiboak onartzea, gizarte osoa aberasteko.

Euzko Alderdi Jeltzaleak badaki ezin gara daitekeena kulturaren potentzial humanistikoa emakumea gizartean integratzeko aurrerapausuak ematen ez baditugu.

Euzko Alderdi Jeltzalea administrazioek helburua emakumearen berdintasuna lortzea duten ekintza positiboak egin beharra bereganatu du. Edonola ere, Euzko Alderdi Jeltzaleak ez du ahaztu pertsona guztiak, gizonezkoak zein emakumezkoak, berdinak izateko kontutan eduki behar dela gizarte osoaren humanizazioa. Gizartea humanizatzeko berekin dakar emakumearen integrazioak orain nagusi den balore-sistema erabat aldatzeko balio izatea, eskubide, betebeharrak eta aukeretan berdintasuna izatearen bila aritzeari uko egin gabe, baina, halaber, emakumeek, diferentziak diren aldetik, gizartearen humanizazioari egiten dioten ekarpen zehatza ezabatu gabe.

Euzko Alderdi Jeltzaleak badaki, gizartearen buruzagia izan nahi badu, eskatzen duena inork baino lehenago bete behar duena.

3.7.- Zaharrak

Zaharrak geroago eta gehiago dira gure gizartean. Kultura arloan, era berean, geroago eta ekoizle emankorragoak eta kontsumitzaile beharagoak dira. Aintzat hartzen badogu adin-talde horietakoek nekez ezagutu dutela kultura, eta batzuek haren berririk ere ez dutela, Euzko Alderdi Jeltzalearen helburu funtsezkoak izan behar dute.

Aspaldion aisialdiko denbora aske asko dutenez eta elkarreetara sarri jotzen dutenez, ekintza-topagune garrantzitsuak dira, kultura gizartearekiko harremanak mantentzeko tresna dela.

4.- EUSKERA

4.1.- Iraganari lotuta, geroari begira

Politikaren alorrean geure buruari ezarri diogun xedea "Aberria egitea" da, hots, Euskal Aberria eraikitzea. Xede hori benetako kultur gertakizuna izan da Euskadiren azken gizaldi honetako gizarte politikaren alorreko bilakaeran, eta horren barruan, zeresanik ez, hizkuntzak beren beregiko tokia izan du.

Euzko Alderdi Jeltzalearentzat Euskadi aberri bat da, gizakiz osatuta dagoen erkidegoa, jatorri etniko eta lurralde euskarri jakin bat dugun gizakiz, alegia; beren beregiko historia iragana eta ohiturak ditugu, bizitzeko era jakinak, formulazio juridiko bakarra, kultura, literatura eta arte bereziak, eta gure erkidegoan gizaldietan zehar erabili izan den hizkuntza: euskara.

Euzko Alderdi Jeltzalearen alderdikideok biltzen gaituzten lotura horien guztien balioa eta garrantzia ezagutu behar ditugu, zein den herri eta aberri moduan egituratzeko balio diguten ezaugarri horien garrantzia, eta denona den iragan horren bilakaera geurea dela onartu, batez ere etorkizunari begira euskal gizartearentzako egitasmo orobiltzaileen jarduten dugulako, askatasun eta borondate osoz. Gure ustez euskal abertzaletasuna indar berrizalea da, gure herriaren askatasunaren eta gizarte ongizatea sustatzeko eta denon asmo eta energiak mugiarazteko eta biltzeko gai dena eta aberria eraikitzeke egitasmo bati aurre egiteko beharko dugun sendotasuna emango diguna, etorkizunerako gizarte eta politikarako ikuspegi baikorrak sustatuko dituena.

Aberria eraikitzeke egitasmo orobiltzaile horretan jarduteke kontzientzia eta borondatea, egun behintzat, ez da bateratsu azaltzen euskaldunon artean, ahaztu ezin diren maila eta ñabardurekin azaleratzen den prozedura baita: sentimenduetan oinarrituta irudi eta maila sinbolikoei lotuta daudenak edota askatasun eta borondate osoz bizitza osoa euskaraz egitea erabaki dutenak.

Euskaldunok, gaur egun, makina bat sinbolo dugu gure artean; horien arabera ezagutzen gaituzte atzerrian eta horien bidez ezagutzen ditugu geure buruak. Sinbolo horien artean batek badu besteek ez duten maila edo garrantzia, euskal gizartearen beren beregiko hizkuntza batean mintzatzen garela, eta hizkuntza hori ez dela beste inon sortutakoa, bertokoa baizik. Hizkuntza horrek izari benetan berezia du gure artean, elkar ulertzeko kanpoko zerbait baino askoz gehiago da. Euskara eraiki nahi dugun etorkizunaren adierazle da, eta horretarako nahitaezkoa da euskaldun guztiek borondatez eta eraginkortasunez hizkuntza onartzea.

Denon iragan horren eta etorkizuneko utopiaren tartean, euskararen ekologia naturalak oinarri politikoa duten administrazio mailako hiru atal ditu egun: Euskal Herriko Autonomi Elkartea, Nafarroa eta Iparraldea. Administrazioako hiru alor horiek, aldi berean, arazoa nahastu egiten duten hizkuntzaren alorreko eskumen maila desberdinak dituzte eta hori tokian tokiko biztanleek pairatu beharko dute. Gizartearen geruzen arteko ardatza aztertzen badugu desoreka horiek ez dira hain nanbarmenak izango, kasu honetan banaketak homogenoagoak eta bateratsuagoak baitira.

Ekologia naturalari buruzko datuak aztertzen ditugunean argi eta garbi atzeman daiteke maila hori eta gure gizartearen egungo euskararen gizarte ekologia ez datozela bat. Hiritarrek euskararen erabileraren nolmalkuntzaren egitasmoa dela eta adierazten dutena hartzen badugu aise konturatuko gara aldeak ez direla azalekoak, ez direla ñabardura eta maila hutsak; egun administrazio prozesu desberdinak ditugu, tokian tokiko erritmo eta bilakaerak zerikusi gutxi dute euren artean, eta hori guztia dela eta sortzen diren gizarte dinamikak oraintxe bertan tajutu eta egituratu behar ditugu oinarritzko egitasmo horren inguruan. Euskaldun hiritarren gehiengoa alde dago, eta egitasmo horren oinarriak demokrasiaren parametro eta baloreenak dira, hots, hiritarrak bakean bizitzeko nahi duen gizarte aske, zuzena, demokratikoa eta eguneratuaren ildotik datozenak.

4.2.- Hizkuntz aniztasuna gizarte egituratu batean

Maila honetako egitasmo bat ezin da momentu batean burutu eta egokiagoa litzateke esatea aldaketara bideratuta dauden prozesuak burutu behar direla, sustraiak historian dituzten egoera soziologiko eta soziolinguistikoei aurre egiteko sortu den borondate politiko baten bidez bultzatuko liratekeen legegintzazko eta administrazioko prozesuak, alegia.

Beraz, horiek guztiak prozesu konplexuak izango dira, elkarlotuta daudenak eta harreman ugari dutenak; prozesu horiek antzekoak dira oso, eta zaila izango da bakoitzaren gidalerroak eta etorkizunerako joerak ezartzea.

Batzuk prozesu horien alde azalduko dira, beste batzuk eragozpenak ikusi eta oztopoak jarriko dizkiete; sarritan gatazkaren iturri izango dira, beti ere protagonisten jarrera sutu eta beroak eragiten dituztelako; baliteke jendea horien kontra azaltzea, edo susmo txarrak piztea batzuegan, edo beste batzuek ezikusiarrena egin eta kasurik ere ez egitea; baliteke esparru zabalagoetan jarrera hori arreta eta jakinahia izatea.

Azken urte hauetan, hala Euskal Herrian nola Europan, benetako eztabaida politiko eta intelektual sakonak sortu dira hizkuntzen arteko elkarbizitza eta lege eta betearazpen mailan ezarri behar diren hizkuntz politikak direla eta ez direla.

Europa eraikitzen ari garen egungo une politikoaren moduko batean guk aldarrikapen argi bat egin nahi dugu, Europa osatzen duten herrien kultura eta hizkuntza errealitatean oinarrituta eraiki behar dela. Europa ezin da eraiki kultura eta hizkuntza bezalako ikuspegiak albora lagata.

Lehenengo eta behin, argi adierazi behar da galtzeko arriskuan dauden ondare kulturalak bultzatzera bideratuta dauden hizkuntz politiken legezkotasuna, berdin da galtzeko arrisku hori inguruabar soziokulturalengatik izan edo aurretik kultura horrek kontrako erasoak pairatzeagatik izatea; halaber, hizkuntza horien erabilera sendotu behar da, horretarako lehenespenezko neurriak baztertu gabe. Neurri horiek bereizkeriak direla edo eskubideen kontra aplikatzen direla esatea kasu bakarrean gerta daiteke, hots, zuzenean beste kultur tradizio bat duten pertsonen eskubideen kontra erasotzen denean.

Badakigu antolamendu juridiko aske, anitz eta beren beregi bereizkeria bazterten duen batean zaila dela oso esatea neurri batek noiz erasotzen dien gainerakoen eskubideei. Ezarri egiten den edozein neurrik, xedea edozein izanik, bortizkeria kutsu bat itsasten du kontzientzietan, eta gauza jakina da noiz edo noiz zamatxo hori azaleratu egingo dela. Hori gertatzen denean kulturak berez daukan begirune eta askatasunerantzako joera eragotzi eta elkartasuna apurtzen du.

Pertsona ororen eskubideak eta historia eta gizarte errealitateak ezagutzeak, nahitaez, hizkuntz anitzeko Europara eramango gaitu, baina ez itxurazkoa, benetakoa baino. Ez da ataza erraza izango, batez ere gurea bezalako hizkuntza txiki eta gutxituen inguruan beti izaten delako historiaren bilakaeragatik bere burua sendotu duen hizkuntza erraldoiren bat, beti administrazio indartsua eta komunikabide eguneratuak izaten dituena. Horregatik, bada, presio edo bazterkeria hori ezabatzea edo orekatzea ahalbidetzen duten bitartekoak jarri beharko dira.

Hizkuntza eta hiztunak, komunikatzeko erabiltzen dutenak, ezin dira bereiztu. Hizkuntzak beti daude pertsonen gizarte jokaren pentzutuan. Elkarbizitzan aritzen direnak ez dira hizkuntzak, gizakiak baizik.

Eta gizaki horiek dira, ez hizkuntzak, elkarri erasotzen diotenak eta elkarlehian aritzen direnak. Oro har, gizakiak dira elkarri eskubideak zuzkitu edo ukatzen dizkietenak, beraienak diren giza eskubideak.

Hizkuntza desberdinen arteko hiztunen harmonia behar dugu eskuratu. Begirunea eraso eta gorrotoari gailendu behar zaio. Elkarlehia eta bestea baztertzearen ideia bertan behera utzi eta elkar aberastuko dugula, lankidetzan arituko garela, probetxua aterako diogula pentsatzen eta sinesten hasi beharra dago.

Gaztelera ez diren beste hizkuntzak babesteko eta sustatzeko esparru juridiko eta politiko hori egotean oinarritu den hizkuntz aniztasun hori politika eta lege mailan aintzakotzat hartzea da egungo araubide demokratikoaren ezaugarriarik aipagarrienetarikoa. Kultura demokratikoa sendotzeko eta giza eskubideen kulturara heltzeko aurrera egitea ekarri du. Europak ere norabide horretatik aurrera egitea erabaki du eta biztanle guztien hizkuntzen eskubideak bildu nahi ditu, lehen aipatu dugun moduan, elkartasunean oinarrituta eta beti ere argi utzita komunikatzeko eta bategiteko bideak direla.

Nabarmena da hizkuntzaren alorreko arazoak ondoko termino hauetan planteatu behar direla: aldi berean itxiak eta irekiak behar dugu izan. Itxiak inor sar ez dadin gure hizkuntza erabileretan, irekiak kultoagoak izateko, komunikatzeko dugun ahalmena sustatzeko eta kultur endogamiari ihes egiteko.

4.3.- Itxurazko ofizialkidetasunetik benetako ofizialkidetasunera

Autonomi Elkartean bizi garen euskaldunok tresna oso baliogarri eta erabilgarria dugu, Euskararen Erabilerarako Normalkuntzari buruzko Legea, aurreko ataletan deskribatu ditugun parametro eta baloreen laburpen orekatsua egiteko sakon-sakoneko korpus juridikoa delako. Lege horretan Euskal Herriko hiritar guztien ahozko zein idatzizko elebitasuna eskuratzean datzan jarduketa egitarau ausarta formulatu da.

Horrela, bada, oinarrizko Legean ezarri da Euskara Euskadiko hiritar guztien elementu integratzailea dela. Euskara, historian oinarritzen den lotura eta Euskal Herriaren nortasunaren adierazgarria ezezik, euskaldunok geure etorkizunari begira zehaztu dugun aberri eta kultura egitasmoaren ardatz nagusia ere bada.

Euskararen Erabilerarako Normalkuntzari buruzko Legearen xedeak, aginduak eta aurrikus- penak denbora luzean zehar hedatuko diren aurrikuspen eta erabakiak dira.

Aurrikusi den hizkuntz jokaeren aldarazpena helburu amankomun batekin norberaren mailako jarrera bereiztu eta egokien multzo batean oinarrituko den erkidegoaren jarrera baten emaitza baino ezin da izan; helburu amankomun hori euskara Euskal Erkidegoaren lehen adierazgarria izan dadila da, eta egineran Euskal Herrian bizi garen hiritarrok gure gizarte bizitzaren esparru guztietan euskara erabiltzeko gai izan gaitzela, eta hala nahi izanez gero, adierazteko eta komunikatzeko lehen hizkuntza gisa erabili ahal izatea.

Egun Euzkadin martxan daukagun euskararen gizarte normalkuntzarako prozesuak alderdikide bakoitzaren ahalegin berezia eskatzen du, bai eta denena ere, talde gisa; ahalegin horren helburua gure euskal nortasuna eta sormenerako dituen ahalmenak erabat zehaztea da.

Horregatik guztiagatik, Euzko Alderdi Jeltzalearen aburuz nahitaezkoa da 1982. urtean legebiltzarrean lortu genuen elkarradostasunaren oinarrizko sustraletara itzultzea; indarrak hartu, orain arte egin eta lortu duguna eta horrek izan dituen eraginak ondo aztertu, eskuratu ditugun emaitzak iraganeko eta etorkizuneko baldintzak kontutan hartuta baloratu eta denon helburua den hori lortzeko jarduketaren oinarriak berrezarri: euskaldunok elkarren artean komunikatzeko tresna eguneratzeko eta euskararen erabileraren gizarte normalkuntzaren prozesuan aurrera egiteko gizarte baldintzak bideratzea.

Euzko Alderdi Jeltzaleak arreta handiarekin jokatu nahi du, hamarkada batean elkarrados- tasunean eta integrazioan oinarritu den prozesu orobiltzailea bete ondoren, egun kontrako joera hartu dugu eta nor bere muturrera eraman nahian dabilzala ematen du, elkarradostasun hautsiz eta ez hori bakarrik, argi eta garbi hizkuntz politikarako ezarri ziren zutabeen kontra erasoz, hots, integrazioaren kontra.

Dena den, nahiz eta hala gazteleradunen ikuspegi elebakarretik nola euskaradunen ikuspegi elebakarretik gizarte talde oso txikiren batzuk arazoa muturretara eraman nahi, Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du Euskal Autonomi Erkidegoaren barruan egon badagoela oinarrizko funtsezko hitzarmen bat euskarak, euskararen ezagutzak eta erabilerak aurrera egin dezaten maila guztietan: norberaren, lurraldearen eta betebeharren mailetan. Hitzarmen horren barruan beren beregi azaltzen da horrelako prozesu zail batek berez dituen ekonomi kostuei eta ahaleginei eusteko, ekiteko eta aurre egiteko asmoa. Euzko Alderdi Jeltzalearen aburuz hizkuntzaren gaiak ez du inolako etenik edo bereizketarik sortu euskal gizartean. Zerbait esatekotan kontrakoa esango genuke, euskal hiritarrek euskararen erabileraren normalkuntza prozesuan parte hartu behar dute eta jakin ere jakin behar dute lortu nahi den helburua eskuratzeko ezegonkortasunak, desorekak eta arazoak izango dituztela, baina, aldi berean, ohartzen dira arazo horiek norbera eta egituraren oinarrizko jokaerak eta jarrerak goitik behera aldatu behar dituen gizarte prozesu bati lotuta dauden ezaugarriak direla.

Hiritarrek burutu duen hausnarketa horrek hasita dagoen prozesu honen bideragarritasuna eta jarraipena bermatzen du. Euskal gizartearen gorputza osasuntsu dago, gure iraganik maiteenarekin biltzen gaituen egitasmo zehatz hori onerako dela jakiteak, etorkizunean gizarte eredu batuago eta lotuagoa eskuratzeko balioko digun egitasmo horrek, gehi Euskal Erakundeek behin eta berriro helburu horiek lortzeko beharrezko diren baldintzak zuzki ditzaten azaldu dugun borondate politiko sendoak, deskribatu ditugun xedeak eskuratzera eramango gaituzte.

Euskararen normalkuntzaren erronkari eutsi eta hamahiru urtetan hizkuntz politika zentzuzkoa eta zuzena burutu ondoren, ondoko hauek lortu ditugu:

{ Euskararen ezagutza eta jarraika gora egiten ari den erabilerak bermatzen dihardugu; lortu dugu euskara komunikatzeko bidea izatea eta irakaskuntzaren alorrean erabiltzea.

{ Euskal Erakundeetako bide ofizial eta administraziozkoetan gero eta gehiago erabiltzea lortu dugu, eta erabilera hori normalizatzea.

{ Euskarak komunikabideetan duen erabilera sustatu da, batez ere Eusko Jaurlaritzaren menpean dauden herri komunikabideetan.

{ Euskara idatziaren kalitatea eta malgutasuna hobetu da.

{ Euskarak gizarte mailan duen ospea historia osoan zehar izan duena baino askoz ere hobea da.

{ Hizkuntzaren alorreko korpusaren normalkuntzarekin batera euskaldunen onarpen orokorra gertatu da.

{ Adinaren eta hizkuntz gaitasunaren arteko batazbestekoak hobera egin du. Hiritarrik gazteenek gehiago ezagutzen dute euskara, eta batez ere, hobeto ezagutzen dute.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, halaber, ondokoak azpimarratu nahi ditu:

{ Euskal herriko jaiotze tasa eta Lurralde Historiko bakoitzean jaiotzen den euskaldunen tasaren arteko banaketa erabat kontrakoak eta bateraezinak direla.

{ Hizkuntza ofizialkideen erabileraren alorrean euskara dela galtzaile nabarmena. Elebitasuna ez da benetakoa, eta ez da benetakoa hiritar elebidun kopururik handiena adierazten duten eskualdeetan eurretan.

{ Azken urteotan euskararen ezagutzak gora egin badu ere, erabilerak ez du egin horren heinean.

{ Prozesua dela eta jarrerak desberdinak dira, eta hizkuntz politikan ekintzak aplikatzeko eritmoak eragin eta erantzun desberdinak sortzen ditu talde desberdinen arabera: euskaldun militanteak, euskaldunak, erdaldunak, erdaldun militante elebakarrak, ...

{ Euskararen erabileraren alorrak oso astiro zabaltzen direla. Hezkuntza eta kultura dira egoerarik onena dutenak baina industria eta ekonomian euskararen erabilera hutsaren parekoa da.

{ Etengabe alor berri eta hiztun berrien bila gabiltza eta beharbada hori laga eta hobe litzateke intentsitatea eta ikuspegia aldatu eta beren beregiko eta berezko esparruak zaintzea eta norberaren euskara maila hobetzea.

{ Behin baino gehiagotan hizkuntz politika bazterreko sektoreen eskakizunekin batera gizarteratzen dela.

Horiek guztiak kontutan hartuta, Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du badagoela oreka berri batera egiteko biderik; hori bai, kontutan izan beharko dugu hizkuntz politika aplikatzeko erritmoak muga bat duela, hots, gizarteak orokorrean onar dezakeen erritmoa. Hala ere, politikak antolatu behar dira gizartearen onarpena areagotzeko.

Ikuspegi horretatik, Euzko Alderdi Jeltzaleak gonbidapena luzatzen die gainerako alderdi politiko eta Aberriko gizarte indarrei Herri honetako hiritarrek nahi duten hizkuntz orekarako burutu behar diren ekintzak berriz zehazteko; euskara bezalako hizkuntza batek, txikia eta gutxiak, aurrera egin dezan egokiena den hizkuntz politika definituz, ezagutza gizarte bizitzaren esparru guztietan eta era egokian sustatuz.

Abiapuntua gai horiek birrezartzea delarik, Euzko Alderdi Jeltzalearentzat funtsezkoa da lehenengo eta behin euskaldunen erkidegoaren leialtasuna eta lotura sustatzea, erabileraren esparruak zabaltzea eta, batez ere, euskaraz bizitzea erabaki duten hiritarren euskara-maila eta gaitasuna eskuratzea; halaber, bizitzeko era hori aukeratzea gero eta bideragarriagoa izatea eta gizartean sendo sustraitzea lortu behar dugu.

Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du egitasmo jakin batzuek lehentasuna behar dutela eduki, esaterako beren beregiko egitasmoak, edo euskaldunen artean euskararen erabilera bultzatzeko norbanakoarentzat egiten direnak, edo hizkuntz ohituren aldaketa bideratzeko direnak. Xedea euskarari betebehar eta funtzio berriak esleitzea da eta euskara ezagutzen duen multzoak benetan erabiltzeko aukera izan dezala, hots, hizkuntz funtzio guztiak euskaraz garatzeko gai den hiztunen korpus sendoa lortzea.

Euskarak, gaur egun ere, ahozkoan oinarritzen du bere jarduna. Gaur egun, idatziz aritzeko gaitasuna eskuratzea da euskaldunen taldearen erronkarik garrantzitsuenetarikoa. Euskaldun askorentzat nahikoa da ahozko gaitasuna eguneroko bizitzan aurkezten zaizkion benetako erabilerei aurre egiteko. Euskal erkidegoaren hizkuntz gaitasuna hobetzea eta aberastea nahitaezko baldintza da egungo Euskal Herriko egoera soziolinguistikoan. Euskaldunen taldeak ahalegin berezia egin behar dugu, zentzuzkoa, gure hizkuntzak hala ahozko nola idatzizko mailan duen erabilera gizarte mailan sendotzeko.

Euskaraz aritzen den talde horri dagokio gainerakoei azaltzea egitasmo hau denon onerako dela, euskara hiritarren arteko ohiko hizkuntza bilakatzeko xede hori gizarte berri baten sustraia izango dela jakinaraztea, horrek guztiak denon kultura aberastuko duela eta maila horretara helduz gero gure geure gizartearen arteko harremanak lasai eta arinagoak izango direla, hots, gizarte egonkorragoa lortuko dugula.

Euzko Alderdi Jeltzalearen ustez, bada, euskararen normalkuntzara bideratu den hizkuntz politika horren helbururik behinena hiritarrek euskaraz komunikatzeko behar duten gaitasuna era egokian eta nabarmenean sustatzea da eta horri guztiari lehentasuna ematea. Lan hori euskararen beren beregiko eta berezko esparruetan egin behar da; ahaleginak batu behar ditugu lehenengo eta behin horixe lortzeko, euskara gotorlekua izan dadila bere ohiko esparruetan, berezkoak zaizkion komunikatzeko ahalmenetan, beti erabili izan den lekuetan; gero, bigarren urratsa hortik ateratzea, hala geografikoki nola gizartearen geruzetan. Lehenbizi ohikoa eta berezkoa indartu eta gero, indar berriekin, hedatu, baina atzera egiteko arriskuak ahaztuta.

Beraz, Euzko Alderdi Jeltzalearen iritzia hizkuntz politikari ikuspegi berri bat eman behar zaiola da, Euskal Herriko ekintza soziopolitikoen multzoaren barruko parametroetara eramanez, gizartearen barruan gehiengoak dituen baloreetara ekarri, oro har, euskararen erabilera hobea izan dadin dauden berezko mugei aukerabideak zabaltzea.

Euzko Alderdi jeltzaleak, Euskal Herri Administrazio gehienaren arduraduna denez, uste du hizkuntz normalkuntzaren prozesuaren aldeko apostua egiten segitu behar duela eta herritarrei bidea eman behar diela Euskal Autonomi Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan hitz egiteko eskubidea erabiltzeko. Ostera, Euzko Alderdi Jeltzaleak badaki normalkuntzaren prozesu horri kritikak egiten dizkiotena, batzuek zintzoki eta onerako, beste batzuek asmo gaiztoz, interesak dituztelako eta normalkuntzarik nahi ez dutelako.

Horregatik guztiagatik, Euzko Alderdi Jeltzaleak ahaleginak eta bi egingo ditu hizkuntz normalkuntzaren prozesuaz ahalik adostasunik zabalena eta eraginkorrena izan dadin behar diren aldarazpen guztiak egiteko.

Euzko Alderdi Jeltzaleak adierazi nahi du kezkatu dagoela Nafarroan eta Iparraldean euskarak duen lege aintzatespenaz eta erakundeek ematen dioten laguntzaz, izan ere ez baitira nahikoak. Egoera kaskar hori hobetzeko lan egiteko hitza ematen dugu.

Hizkuntz politika bat garatzen denean atal asko ez dira, eta ezin dira izan, jaurtzerako ekintza zehatz batzuen ondorio, era guztietako gizarte eragileen jardueraren eragina baizik: erakundeak, elkarteak, industria edo merkataritzaren alorreko enpresak, gizarteko komunikabideak; eta mailarik garrantzitsuenean, hiritar bakoitzaren jarrera, askea eta borondatezkoa, hots, benekako elebitasunaren kontra egiten duena, ezikusiarrena egiten duena edo goitik behera ados dagoena.

Euzko Alderdi Jeltzalea da Euskal Herri osoko erakunderik handienetakoa. Egituraren zuzkiduraren alorrean ere onenetarikoa dela esatea ez da gehiegi esatea, gure Alderdia gizarte eragile funtsezkoa da, eta euskal gizarte osoa lekuko dela aldarrikatu nahi dugu euskararen erabileraren normalkuntzarako prozesuan buru belarri arituko garela. Hitz hori eman eta beteko dugu, hala barruko jardunean nola erakundeetan; barruan historiarekin bat gatozelako eta guk eratu eta eraiki nahi dugun Aberrirako nahitaezkoa delako euskarak merezi duen lehentasuna ematea, gure aberri hizkuntza baita, euskaldun guztiona; erakundeetan euskararen gizarte normalkuntzarako beharrezkoa eta nahikoak izango diren prozesuak eta baldintzak ezarri, lortu nahi dugun xedea eskuratzeko erakundeen eta gizartearen beraren laguntza egokia izan dadin. Hizkuntza berri bat etorkizunaren erronka onartu duen Herriarentzat.

Horregatik guztiagatik, Euzko Alderdi Jeltzaleak bere barne kargudunei zein erakundeetan dituen ordezkariak euskaraz hitz egitearik lehentasuna emateko eskatuko die.

Aurrean adierazi dugun guztia bete dadin, ezinbestekotzat jotzen dugu erakundeetako ordezkariak edo bozeramaileak euskara erabiltzea (Lehendakaria, Euskal Taldearen Bozeramailea, diputatu nagusiak, batzar Nagusien lehendakariak, Batzar Nagusietako ahaldunen bozeramailea, alkateak, Kongresuko eta Senatuko bozeramaileak, etab.)